



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

HOWARD GARDNERREN ADIMEN ANITZEN TEORIA EGUNERAKETA PRAKTIKOA

Gradu Amaierako Lana
2021/2022 Ikasturtea

Egilea: Castro Suarez, Aitor

Tutorea: Longarte Arriola, Joseba

AURKIBIDEA

1. SARRERA	6
2. JUSTIFIKAZIOA	6
3. MARKO TEORIKOA HOWARD GARDNER ETA ADIMEN ANITZAK	7
3.1. BIOGRAFIA: HOWARD GARDNER	7
3.2. ADIMEN ANITZEN TEORIA	8
4. ADIMENAK GARATZEKO ARIKETAK	14
5. IRAKASLEA ETA ADIMEN ANITZAK	15
6. UNITATE DIDAKTIKOAREN GARRANTZIA	16
7. TESTUINGURUA ETA IKASTETXEA	17
7.1. Ikastetxea	17
7.2. Irakasleak eta ikastaldea	18
8. UNITATE DIDAKTIKOA	18
Justifikazioa	19
Tenporalizazioa eta kokapena	19
Lotura Kurrikularra	19
Helburu didaktikoak	20
Oinarrizko Zehar Konpetentziak	20
Oinarrizko disziplina barneko konpetentziak	21
Edukiak	22
Helburuak	23
Ebaluazioa	23
Lorpen Adierazleak	23
9. SAIOEN DISEINUA	24
1. Saioa: Aurre orientazio jolasak	25
2. Saioa: Eskalak ikasten!	28
3. Saioa: Iparrorratza manejatzen	30
4. Saioa: Gimnasioko mapa marraztu + ibilbidea jarraitu	34
5. Saioa: Mapak antzematen	36
6. Saioa: Mapak antzematen	39
7. eta 8. Saioak: Bagoaz parkera!	41
10. ONDORIOAK	45
11. BIBLIOGRAFIA	46
12. ERANSKINAK	48

LABURPENA

Gradu amaierako lan honen abiapuntua graduan zehar aztertutako pedagogoen berrikuspena izan da. Hauek eragin handia izan dute hezkuntzaren historian zehar. Horretako bat Howard Gardner izan da, hezkuntza aberats eta anitz baten alde jotzen duena, ikasleetan oinarrituta. Lan honetan, Gardnerren adimen anitzen teoria landuko da. Lehenengo teoriaren funtsa azalduko da, geroago proposamen didaktiko zehatz bat era praktikoan diseinatzeko. Proposamen honetan ikasleen interesak kontuan hartuko dira, betiere haiek prozesu osoaren protagonista bihurtuz. Helburu horrekin elkarrizketa batzuk burutuko dira ikasleen interesak eta nahiak jasotzeko eta ikaskuntza prozesua esanguratsua bihurtzeko. Azkenik, Gardnerren ideien gauregunekotasunaren pertinentziaz hausnartuko da.

Hitz gakoak: Howard Gardner, pedagogia, adimen anitzak, ikasleen interesak, proposamen didaktikoa, ikaskuntza esanguratsua.

RESUMEN

En este trabajo de fin de grado nos vamos a sumergir en el mundo de la pedagogía teniendo en cuenta los autores que se han visto durante la carrera. Muchos pedagogos han obtenido mucha importancia durante la historia gracias a sus ideas y principios. Uno de estos pedagogos ha sido Howard Gardner gracias a su teoría, que apuesta por una educación rica basada en los intereses y necesidades de los alumnos. Después de desarrollar sus ideas y teoría sobre las inteligencias se va a proponer una secuencia didáctica basada en dicha teoría. Para ello se van a tener en cuenta los intereses de los alumnos mediante unas conversaciones para convertirlos en los verdaderos protagonistas y que el proceso de aprendizaje sea significativo. Por último, se reflexionará sobre la pertinencia de la actualidad de las ideas de Gardner.

Palabras clave: Howard Gardner, pedagogía, inteligencias múltiples, interés de los alumnos, secuencia didáctica, enseñanza significativa.

ABSTRACT

In this last project of the education degree we are going to immerse in the world of pedagogy. A lot of pedagogues become important because of their ideas and values and one of them is Howard Gardner. In this project are going to analyze his ideas, the theory of multiple intelligences. After analyzing his ideas a didactic sequence based on orientation will be proposed to carry out this theory. For this, the interest of the students will be taken into

account through coverations to make them the protagonist of the process and to make the process significant.

Key words: Howard Gardner, pedagogy, multiple intelligences, students interest, didactic sequence, significant education.

1. SARRERA

Pedagogia irakaskuntzaren mamia da. Saiok bideratzeko funtsezko alderdia. Zientzia horretaz zenbat eta gehiago jakin, hobe. Proposamen pedagogiko ugari daude eta hauek ezagutzea garrantzitsua da gure lanbidean ikasleen jakinmin eta beharrak asetzeko.

Irakasteko modu tradizionalan informazioa eta ezagutzen transmisorea irakaslea izango zen, ikaslea berriz, hartzaile hutsa. Ikasleen ezaugarriak eta banakako beharrak ez ziren tradizionalki kontuan hartzen. Gaur egun, aldiz, zorionez hezkuntza aldatzen ari da. Irakasleok, gida edo bitartekari moduan jokatzeko dugu eta ikasleek hezkuntza prozesuaren protagonistak bihurtzen dira. Halaber, irakaskuntza prozesu indibidualizatu bat bilatzen da ikasle bakoitzaren gaitasunak ahalik eta gehien indartzeko, ikasleek dituzten interesak kontuan hartuz. Era berean, eginez ikasten da, beraz, bilatuko dena ikasleak egitearen bitartez ikastea izango da, ikasitakoa barneratzea errazagoa izateko.

Hezkuntza sortzailea aurrera eramango duten pedagogia ideia berritzaile ezberdinen esku egongo da. Hau da, eskola batean irakaskuntza aurrera eramateko, beharrezkoa da pedagogia berrien oinarritzko ideiak argi izate eta aplikatzea.

Lan honekin, Howard Gardnerren ekarpenak aztertu, ezagutu eta sakondu nahi ditut. Horrela, ikasleen ezagutzen barneraketa hobetu, haiek motibatu eta prozesuaren protagonistak bihurtuz. Era berean, irakasle moduan aberastu nahi dut etorkizuneko erronkei ahalik eta hoberen erantzuteko. Egia da, prozesu hau ikasi dezakegunaren zati bat izango dela, dozente moduan, etengabe formatu beharko garelako, hobetzeko.

2. JUSTIFIKAZIOA

Hasteko esan beharra daukat pedagogia sortzaileen GrAL honetan Howard Gardnerren pedagogiari buruz hitz egitea erabakitzea ez zaidala erreza izan. Pedagogia sortzaileak teoriaren iturburu liburua irakurri ostean eta graduan zehar ikusitako pedagogoak kontuan hartuz, hainbat pedagogo nituen buruan baina azkenean, Howard Gardnerren pedagogia garatzea erabaki nuen, hezkuntza zabal eta aberasgarri baten alde apostu egiten duelako.

Gaur egungo hezkuntzan, zoritzarrez, adimen guztiak ez dira era berean garatzen ezta ez zaie garrantzi berdina ematen. Adimen logiko matematiko eta adimen linguistikoa pisu guztia hartzen dute gaurko hezkuntza sisteman. Dozentzia munduan partaide garen guztiok badakigu ikasleak era anitzetan barneratzen dituztela ezagutzak. Beraz, goian aipatutako bi adimen hauetan hezkuntza oinarritzea ikasleei hegalak moztea da. Ikasleen

arteko harremanak sustatu behar dira (adimen interpertsonala) eta aldi berean emozioak landu, haiek bere burua autoerregulatzeko (adimen intrapertsonala) beste adimenekin batera. Izandako hiru praktikaldietan garrantzi gutxi hartu duten alderdiak dira eta ikasleek umetatik jakin behar dute bai erlazionatzen bai haien emozioak eta arazo egoerak kudeatzen. Aurtengo praktikaldian, konfinamenduaren poderioz, ikasleek alderdi emozionalean atzerakada nabaria izan dutela antzeman dut. Beraz, praktikaldian ikusitakoaren ondorioz, adimen guztiak lantzea garrantzitsua dela ikusi dut ikasleen garapena aberatsagoa izateko. Bestalde, ez da ahaztu behar ikasle guztiek ez direla bikainak izan behar adimen bakar batean. Hezkuntza aipatutako bi adimen hauetatik haratago doa. Haien adimen ahulak sendotu behar dira eta adimen sendoak errefortzatu. Adimen anitzen teoriak trebetasun kognitiboak garatzeko aukera ematen du. Nork bere adimenak ahalik eta hoberen garatzen ahalbidetzen den teroia da Howard Gardnerrena.

3. MARKO TEORIKOA HOWARD GARDNER ETA ADIMEN ANITZAK

3.1. BIOGRAFIA: HOWARD GARDNER

Howard Gardner 1943 an jaiotako psikologo eta pedagogo Estatu Batuarra (Scranton, Pennsylvania) da, adimen anitzen teoria formulatu eta garatu zuena. Harvardeko Unibertsitatean Filosofia, Soziologia, Psikologia eta Medikuntza ikasi zituen. Gaur egun, Hezkuntzako irakaslea da Harvarden, Bostonen Neurologo moduan eta Harvardeko Unibertsitatean Project zero izeneko proiektu esanguratsuaren zuzendari ondokoa da, non ume eta helduen ikaskuntza prozesuak aztertzen diren.

Bere ikerketa zientifikoa hurrengo alderdietan zentratu egiten dira: giza adimenaren jatorriari buruzko azalpen berriak egitea; Adimen Anitzen teoria hezkuntza sisteman ezartzeko estrategiak bilatzea; gaitasun kognitibo desberdinen garapenera zuzendutako programak sortzea; kasu bereziak ikertzea, hots, indibiduo sortzaileak, liderrak eta abar; burmuineko kalteak eta hizkuntz aldaerak ikertzea; eta lan munduan adimen ezberdinek duten garrantzia aztertzea.

Howard Gardenrren ikerketa lanek, hurrengo ondorioa atera zuten; "adimena ez da soilik gai abstraktuak konpontzeko gaitasunera mugatzen, baizik eta elkarren artean eragiten duten hainbat alderdik osatzen dute, nahiz eta alderdi horietako bakoitza norbanakoaren bizitzan zehar lantzen dituen egoetara espezifikoki egokitzea"

3.2. ADIMEN ANITZEN TEORIA

Inteligentzia garai ezberdinak igaro ditu historian zehar. Howard Gardner (Gardner, 2006), *“Estructuras de la mente: La teoría de las inteligencias múltiples”* hiru fase desberdintzen ditu:

- Legas Teoria: ia giza historia osoan zehar inteligentziari buruzko definizio bat ez da egon. Hala ere, jendeak besteei azkartzat, tontotzat, miraritzat... izendatzen zuen. Hainbat pertsonai jakitun, Mahatma Gandhi besteak beste.
- Ikuspuntu psikometriko komuna: duela mende batzuk psikologoek inteligentzia terminoa era tekniko batean definitzen saiatu ziren eta aldi berean, hau neitzeko teknika ezberdinak.
- Pluralizazioa eta jerarkizazioa: psikologoek lehenengo belaunaldiak inteligentziak edo adimenak epaitzeko erarik hoberena arazoak konpontzeko eta kontzeptuak osatzeko gaitasun bakartzat hartzen zuten.

Adimen anitzen teoriak ezin da hitz egin adimen edo inteligentziaren inguruan azken mendean sortu den ideia kontuan hartzen ez bada. Mendebaldean garatua izan da baina munduko beste toki batzuetan eragina izan du. Ideia hau, adimen bakarra dagoela ustea da, denok inteligentzia bakarra dugula. Inteligentzia oinordetu egiten da neurri batean. Beraz, pertsona baten guraso zein aitona amonak ezagutuz pertsona horren inteligentzia zehaztu daiteke era batean. Azken mendean, psikologo eta biologoek frogak ezberdinen bitartez gizakiaren azkartasuna zein den jakin daitekeela adierazi dute, burmuin uhinak, gidatzeko era aztertuz...

Gardner eszeptikoa da ikuspuntu honetan. Duela urte asko horrela egin zirela gauzak adierazten du baina horrek ez duela esan nahi ondo eginik daudela. Duela 25 urte baino gehiago inteligentzia edo adimena beste ikuspuntu batetik ikertzen hasi zen. Nerbio sistemari buruz milaka urtetan ezagutu izan denari buruz aztertu zuen, ornogabeetatik hasiz, primatetatik jarraituz gizakiarengana iristeko. Gizakiek historian, historiaurrean eta gaur egun, Ekialdeko Afrikako sabanetan, Hegoaldeko itsasoetan, gizarte industrialean edo gaur egun gizarte postmodernoan hartu dituzten roleri buruz ikasi zuen, zer trebetasun mota baloratzen ziren ikusteko. Hortaz aparte, munduko biztanleriaren multzo bereziak aztertu zituen, jentoiak, autistak edo perfil irregularrak zituzten pertsonak, gauza batzuk ondo ematen zitzaizkienak baina beste batzuk ordea, ez. Askok interesatzen zitzaion nola irudikatzen ziren trebetasun horiek garunean. Seguruenik frogarik argiena inteligentzia edo adimen hauek gure nerbio sisteman leku ezberdinak hartzen dituztela izan da. (Gardner, 2009)

Denbora gutxi arte adimena jaiotzetik eskuratzen zen zerbait bezala hartzen zen. Inteligentea jaiotzen zinen edo ez eta hezkuntzak ezin zuen aldatu. Garai batean, adimen urritasuna zuten pertsonak ez ziren hezten alferrikako esfortsutzat hartzen zelako. Gardnerrek ineligentzia ahalmen bat bezala definitzen duenez garatu ahal den gaitasun bat bihurtzen du. Guztiok potentzialtasun batzuekin jaiotzen gara genetika markatuta. Potentzialtasun hauek garatu egingo dira era batean edo bestean ingurunearen, esperientzien eta jasotako hezkuntzaren arabera besteak beste. Maila altuko kirolariek ez dituzte haien marka hoberenak lortzen entrenatu gabe nahiz eta bere potentzialtasuna genetikoki oso ona izan. Entrenatu behar da eta berdina gertatzen da adimen edo inteligentzia ezberdinekin. (Gardner, 1987)

Gardnerrentzat, inteligentzia, arazoak konpontzeko eta produktu berriak testuinguru aberats eta naturalista batean sortzeko gaitasunean oinarritzen da. Ezin da pertsona baten inteligentzia maila neurtu bere ikaskuntza testuinguru naturaletik aldentzen badugu ezta inoiz egindako gauzak egitea eskatzen badiogu. Printzipio hauek kontuan hartuz, inteligentzia, kontzeptu funtzional bat izatera pasatzen da. Pertsonen bizitzan zehar garatuz joaten da era ezberdin askotan, ez bakarrik era linguistikoan edo logiko matematikoan. Bi adimen hauek, eskola testuinguruan gehien nabarmendu direnak izan dira (Armstrong, T., Rivas, M. P., Gardner, H., & Brizuela, B, 1999) .

Bere teoria azaltzeko, Gardnerrek metafora batean oinarritzen da. Adimen bakar batean sinesteak gure buruan, garunean, ordenagailu bakar bat egotea bezala pentsatzea da. Ordenagailu horrek akats asko egiten ez baditu, funtzionatzen badu eta azkarra bada, gauza guztietan ona izango da pertsona hori. Aldiz, oso ondo funtzionatzen ez badu, pertsona hori batez bestekoaren barruan egongo zen. Ordea, akats gehiegi egiten baditu geldoa izanez, ergela dela esan nahi du. Adimen anitzen teoriak ordenagailu ezberdinak ditugula aldarrikatzen du, independenteak direnak. Bakoitzak informazio mota batez arduratzen da, beraz, oker dago burmuinak gauza bakarra egiten duela pentsatzen duen pertsonak (Avila, 1999).

“Mundu guztiak ez ditu gaitasun eta interes berdinak; guztiak ez dute era berean ikasten” (Gardner, 1994)

Ondoren, “Inteligencias múltiples en el aula” liburuan Howard Gardnerren 8 adimenak honela azaltzen dira. (Armstrong, T., Rivas, M. P., Gardner, H., & Brizuela, B, 1999)

Adimen linguistikoa: hitzak eraginkortasunez erabiltzeko gaitasuna, ahoz (narratzaile, hizlari edo politikari gisa) edo idatziz (poetak, antzerkigileak, kazetariak). Adimen

honen barruan hizkuntzaren sintaxia edo egitura, fonologia edo hizkuntzaren soinuak, semantika edo hitzen esanahiak, eta hizkuntzaren dimentsio pragmatikoak edo erabilera praktikoak maneiatzeko gaitasuna sartzen dira. Erabilera horietako batzuk erretorika (hizkuntzaren erabilera, beste batzuk ekintza jakin bat egin dezaten konbentzitzeko), mnemoteknia (hizkuntzaren erabilera informazioa gogoratzeko), azalpena (hizkuntzaren erabilera informatzeko) eta metalenguajea (hizkuntzaren erabilera norberaren hizkuntzaz hitz egiteko) dira.

Adimen logiko-matematikoa: Zenbakiak eraginkortasunez erabiltzeko eta ondo arrazoitzeko gaitasuna (zientzialariak, programatzaile informatikoak, logikan adituak). Adimen horren barruan eredu eta harreman logikoekiko sentsibilitatea sartzen dira, baieztapenak eta proposizioak, funtzioak eta lotutako beste abstrakzio batzuk. Adimen logiko-matematikoa erabiltzen diren prozesuak hauek dira: kategorizazioa, sailkapena, dedukzioa, orokortzea, kalkulua eta hipotesien proba.

Adimen espaziala: Ikusmenaren eta espazioaren mundua zehazki hautemateko gaitasuna (adibidez, ehiztari bat, eskolta bat edo gidari bat) eta pertzepzio horietan oinarritutako eraldaketak egiteko gaitasuna (arkitektoak, artistak, asmatzaileak). Adimen honek kolorearekiko, lerroekiko, formarekiko, espazioarekiko eta elementu horien arteko harremanekiko sentsibilitatea eskatzen du. Ikusizko ideiak grafikoki ikusteko edo irudikatzeko.

Adimen zinetiko-korporala: Norberaren gorputza menderatzea ideiak eta sentimenduak adierazteko (aktoreak, mimoak, atletak edo dantzariak). Eskuak objektuak sortzeko edo eraldatzeko erabiltzeko erraztasuna (artisansak, eskultoreak, mekanikariak, kirurgialariak). Adimen honen barruan trebetasun fisiko espezifikoak sartzen dira, hala nola koordinazioa, oreka, trebetasuna, indarra, malgutasuna eta abiadura, bai eta gaitasun propiozeptiboak, ukimenezkoak.

Adimen musikala: Musika-formak hautemateko (musikazale gisa), diskriminatzeko (musika-kritikariak), eraldatzeko (konpositoreak) eta adierazteko (interpreteak) gaitasuna. Adimen honen barruan musika-pieza baten erritmoarekiko, tonuarekiko edo melodiarekiko sentsibilitatea eta tinbrearekiko edo kolorearekiko sentsibilitatea sartzen dira. Musika ikuspegi figural batetik edo "goitik behera" (globala, intuitiboa), formal edo "behetik gora" (analitikoa, teknikoa), edo bietatik ulertu daiteke.

Adimen interpertsonala: Beste pertsona batzuen gogoak, asmoak, motibazioa eta sentimenduak hautemateko eta bereizteko gaitasuna. Barne har dezake aurpegi-adierazpenekiko, ahotsekiko eta keinuekiko sentsibilitatea. Pertsonen arteko seinale mota ugari bereizteko gaitasuna, eta seinale horiei eraginkortasunez eta modu pragmatikoan erantzuteko gaitasuna (adibidez, pertsona-talde batengan eraginez, ekintza jakin bat egin dezaten).

Adimen intrapertsonala: Autoezagutza eta ezagutza horren arabera jarduteko gaitasuna. Adimen horrek barne hartzen ditu norberaren irudi zehatza (indarguneak eta mugak), gogoen, asmoen, motibazioen, temperamentuen eta barne-nahien kontzientzia, eta autodiziplinarako, autoulermenerako eta autoestimurako gaitasuna.

Adimen naturalista: Inguruko flora eta fauna espezie ugari ezagutzeko eta sailkatzeko ahalmena. Beste fenomeno natural batzuekiko sentsibilitatea ere barne hartzen du (hodeien eta mendien eraketak). Hiri ingurunean hazitako gizabanakoen kasuan, bizigabeko formak bereizteko gaitasuna, hala nola autoak, kirol zapatilak edo disko trinkoen estalkiak.

Pertsona asko galdetzen dira zergatik Gardnerrek *inteligentzia* deitzera nabarmentzen duen eta ez *talentua* edo *aptitudea*. Gardnerrek pertsona askok honako esaldia esaten zutela ohartarazi zen: “*Ez da oso inteligentea, baina musikarako gaitasun bikainak ditu*” Esaldi hauengatik, oso argi zeukan inteligentzia hitza argi eta garbi erabiliko zuela kategoria ezberdinak izendatzeko. Gardnerren adimen anitzen teoriak onako oinarri teorikoa du eta honela azaltzen da “*Inteligencias múltiples en el aula*” liburuan (Armstrong, T., Rivas, M. P., Gardner, H., & Brizuela, B, 1999).

1. *Garuneko kalteak eragindako isolamendu potentziala.* Gardnerrek garuneko gune zehatzetan gaixotasun eta istripuak izandako pertsonekin tratu egin zuen. Kasu batzuetan, lesio hauek inteligentzia konkretu batean izan zuten eragina, besteak kaltetu barik. Adibidez, istripu baten ondoren, inteligentzia linguistikoa gabeziak sortu daitezkeen bitartean (hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko zailtasunak), beste inteligentzietan bere ahalmenak mantenduko lituzke. Gardnerrek, zortzi inteligentzia maila autonomoen existentzia defendatzen du.

2. *Jenioak, prodigio eta aparteko beste gizabanako batzuk.* Gardenrek aditzera ematen du oso maila altuetan jarduten duten adimen zehatzak dituzten pertsonak daudela. Jenioak, adimen jakin batean gaitasun handiagoa erakusten duten pesonak direla adierazten du. Beste inteligentzietan ordea, maila baxuan funtzionatzen dute. Zortzi adimenetan jenioak daude. Badaude ikaragarri ondo margotzen duten pertsonak edota sentsibilitate handia dutenak natura eta animaliei.
3. *Trebetasunen garapen bereizgarriaren eta multzo definigarriaren historia.* Gardnerrek iradokitzen du inteligentziak estimulu bat jasotzen dutela zentzu kulturala duten ariketetan parte hartzen denean. Inteligentzia batean oinarritutako ariketek, garapen ibilbide propioa dute. Hau da, agerpen une propioa du lehenengo haurtzaroan, momentu gorena bizitzan zehar eta bere gainbehera. Inteligentzia musikalaren puntu gorena bizitzako adin goiztiarreen lortu dute konpositore askok (Mozart 5 urte zituela hasi zen konposatzen). Inteligentzia matematikoaen puntu gorena nerabezaroan lortzen da. Gainbehera aldiz, ez da musikalaren antzera. Matematikaren historia esaten du ideia matematikoak 40 urte inguru ditugunean agortzen direla.
4. *Historia ebolutiboa eta onargarritasun ebolutiboa:* Gardnerrek, zortzi adimenetako bakoitzak, gizakien eboluzioan sakonki hondoratzen dituela ondorioztatzen du, baita lehenago ere, beste espezie batzuen eboluzioan. Horrela, adibidez, Lascauxeko labar-pinturetan adimen espaziala azter daiteke, baita intsektu batzuk loreak bilatzen dituzten bitartean espazioan orientatzen diren moduan ere.
Adimen anitzen teoriak testuinguru historiko bat ere badu. Badirudi adimen jakin batzuk gaur egun baino garrantzitsuagoak izan direla iraganean. Naturalista eta zinema-gorputza, adibidez, duela ehun urte baino gehiago garrantzi handiagoa zuten Estatu Batuetan. Herritar gehienak landa-ingurunean bizi zirenean, eta ehizatzeke, alea biltzeko eta siloak eraikitzeke trebetasunak onarpen sozial handia izango zuen. Era berean, zenbait adimenek garrantzi handiagoa har lezakete etorkizunean.
5. *Datu psikometrikoen laguntza:* Giza gaitasunaren neurri estandarizatuek adimenaren teoria gehienek eredu baten baliozkotasuna egiaztatzeke erabiltzen duten "testa" ematen dute. Nahiz eta Gardner ez den test estandarizatuen defendatzailea eta, izatez, test formalen alternatibek defendatzaile sutsu gisa izan, test estandarizatu askotara jo dezakegula adimen anitzen teoria babesteko iradokitzen du. Nahiz eta Gardnerrek adierazi proba horiek adimen anitzak testuingurutik kanpo ebaluatzen dituztela.

6. *Zeregin psikologiko esperimentaletan laguntzea:* Gardnerrek azterketa psikologiko espezifikoen bidez adimenen funtzionamenduaren lekuko izan gaitzkeela proposazen du. Adibidez, subjektuek trebetasun espezifiko bat menperatzen duten ikerketetan, irakurketan adibidez, baina trebetasun hori beste eremu batera transferitzea lortzen ez dutenetan, matematikan adibidez, adimen logiko-matematikora pasatzeko gaitasun linguistikoaren porrota ikusten da. Antzeko moduan, gaitasun kognitiboen azterketetan, hala nola oroimenean, pertzepzioan edo arretan, gizabanakoek gaitasun selektiboak dituztela egiaztatzen da. Banako jakin batzuek, adibidez, memoria handiagoa izan dezakete hitzentzat, baina ez hainbeste aurpegientza. Beste batzuek musika-soinuen pertzepzio zorrotza adieraz dezakete, baina ez aditz-soinuena. Ahalmen kognitibo horietako bakoitza, beraz, adimenaren berezkoak dira. Horrek esan nahi du jendeak errendimendu maila desberdinak erakuts ditzakeela zortzi adimenen arlo kognitibo bakoitzean.
7. *Aplikazio zentral bat edo aplikazio identifikagarrien multzo bat.* Gardnerrek dioenez, programa informatiko batek funtzionatzeko aplikazio multzo bat behar duen bezala, adimen bakoitzak eragiketa zentralen multzo bat dauka, jarduera propioei eragiteko balio dutenak. Adimen musikalean, adibidez, osagai horiek tonuekiko sentsibilitatean edo egitura erritmikoak bereizteko gaitasunean oinarritu daitezke. Gorputz-adimenean, eragiketa zentralak beste pertsona batzuen mugimendu fisikoak imitatzeko edo egitura bat eraikitzeke motrizitate fineko errutina ezarriak menderatzeko gaitasuna barne har dezakete. Gardnerrek eragiketa zentral horiek egunen batean ordenagailu bidez simulatzeko moduko zehaztasunarekin identifikatzeko aukerarekin espekulatzen du.
8. *Sinbolo-sistema batean kodetzeko arriskua:* Portaera adimentsu baten adierazle onenetako bat, Gardnerren arabera, gizakiek sinboloak erabiltzeko duten gaitasuna da. Gardnerrek sinbolizatzeko gaitasuna dela gizakiak gainerako espezie gehienetatik bereizten dituen faktore garrantzitsuenetako bat iadokizen du. Bere teoriaren zortzi adimenetako bakoitza sinbolizatua izan daiteke. Adimen bakoitzak bere sistema sinboliko edo notazionalak ditu. Adimen linguistikoaren kasuan, ahozko eta idatzizko hizkuntza ugari daude, hala nola ingelesa, frantsesa, euskara edo gaztelania.

Gardnerren (1994) arabera, egokiena izango litzateke pertsona baten perfil intelektuala identifikatzea adin goiztiar batean eta ezagutza hau erabiltzea bere aukerak hezkuntzan hobetzeko. Ikasle guztiak ez dira berdinak, batzuk inteligentzia edo adimen bat

edo multzo batzuetan hobeto murgilduko dira eta beste batzuk beste multzo edo adimen ezberdinetan. Beraz, guztiak berdinak ez badira, ikaslean oinarritutako hezkuntza bat diseinatu beharko zen.

4. ADIMENAK GARATZEKO ARIKETAK

ADIMENA	ARIKETAK
Linguistikoa	<ul style="list-style-type: none"> ● Irakurketa eta idazmena ● Istorio, ipuin, poemen... narrazioa ● Elkarrizketak eduki talde ikaskuntza gauzatzeko. ● Memoria lantzeko teknikak.
Logiko-Matematikoa	<ul style="list-style-type: none"> ● Asmakizunak ● Enigmak ● Bromak ● Irtenbidea aurkitzeko misterioak ● Ahozko arazoak ● Ordenagailu edo ekipoen programazioa ● Manipulatu daitekeen matematikako materiala ● Material zientifikoa ● Esperimentuak ● Esplorazio jarduerak ● Eztabaida logikoak
Espaziala	<ul style="list-style-type: none"> ● Eredu grafikoak, mapak, legoak, jolas kreatiboak.. ● Ajedrez eta 3D jolasak ● Ipuinak sortu irudien bidez. ● Zientzia materialak erabili: lupak, mikroskopioak, teleskopioak...
Zinetiko-korporala	<ul style="list-style-type: none"> ● Dantza, kirol eta mugimendu sortzaileak. ● Informazioa barneratzeko mugimenduzko ariketak erabili. ● Jarduera fisikoa ● Koordinazio ariketak
Musikala	<ul style="list-style-type: none"> ● Informazioa intonazio edo erritmo musikarekin akonpainatu. ● Jarduera bitartean musika entzun. ● Erlaxatu musikarekin ikasketa aktiboa hasi baino lehen. ● Sentimenduak adierazteko musika ezberdina erabili. ● Erritmo jolasak. ● Kontzertuak.

Interpersonala	<ul style="list-style-type: none"> ● Erronka kooperatiboak ● Arazoen konponbidean oinarritutako jolasak ● Talde jolasak/kirolak ● Dramatizazioa ● Ekintza sozialak ● Ikasleen arteko tutoretzak
Intrapertsonala	<ul style="list-style-type: none"> ● Ariketa indibidualizatuak non helburua indarguneak, mehatxuak eta aukerak kontuan hartuko diren. ● Erreflexio ariketak. ● Egunerokoa. ● Autoebaluazioa eguna bukatzerakoan. ● Ikasle bakoitzaren ikaskuntza prozesua errespetatu ikaslearen beharrak kontuan hartuz.
Naturalista	<ul style="list-style-type: none"> ● Esplorazioa gauzatu. ● Ingurune naturala zaintzearen aldeko akzioak. Kontserbazioa. ● Birziklatzea. ● Landare eta animalien inguruko ariketak eta zainketa. ● Esperimentuak sortu baliabide naturalekin.

5. IRAKASLEA ETA ADIMEN ANITZAK

Egia da, orokorrean, ikastetxeetan ez zaiela garrantzi bera ematen adimen guztiei. Adibidez, adimen logiko matematikoaren garapenari askoz garrantzi handiagoa ematen zaio adimen intrapertsonalarenari baino. Izan ere, hezkuntzan lehentasuna izan beharko luke ikasleek zortzi adimenetako bakoitzean ahalik eta gaitasun handiena lortzeko. Azpimarratu behar da adimen emozionala landu gabe jarraitzen dela ikasgelan eta funtzeskoa da gure burua ezagutzeko eta besteekiko interakzioa modu positiboan eta eraikitzailean gauzatzeko. Adimen mota desberdinen lana eskolara eramateko, irakasgai bakoitzean modu integratzean hainbat adimen mota lantzea proposatzen da, ikasgaiarekin zerikusia duen adimen mota soilik landu beharrean. Normalean egiten dena da. Praktikara eramateko beharrezkoa da irakasleek teoria ondo ezagutzea. Ezagutza hori ondo barneratuta izatea ondoren ikaslee arrakastaz transmititu ahal izateko. Beraz, beharrezkoa da irakasleentzako etengabeko prestakuntza prozesu espezifiko bat. Era berean, komenigarria litzateke Hezkuntza Zientzien Fakultateko graduen ikasketa programan adimen bakoitza aplikatzeko moduari buruzko

oinarriak eta edukiak zabaltzea, irakasleek beren lana behar bezala egiteko aukera izan dezaten (Luz de Luca, 2010).

Irakaslea ikasle guztiei haien erritmorra ikasteko aukera eman behar die haien gaitasunak kontuan hartuta. Inoiz ahaztu gabe planifikazio barruan ez dauden adimenak garatzean. Horretarako Cesar Collen (1991) eredua berreskuratu behar da. Eskolan landuko diren edukiak ikasleen hazkuntzan oinarritu behar dira. Collek adierazten du helburuak argi eduki behar ditugula, hauek garatzeko eduki aproposak aukeratzeko. Ondoren, hauek nola iraktsi kontuan hartu behar da. Horretarako, saio bakoitzean 4 adimen garatzea proposatzen du, gutxienez. Horrela, helburua lortzeko bide ezberdinak ematen zaizkie.

Schneider (2003) proposatzen du irakasleok ikasleen jakintzak gidatu behar ditugula. Hau da, hezkuntza estrategia ezberdinen bitartez laguntzea haiek estrategia propioak garatzeko, ikaskuntza prozesua eraginkorra izan dadin. Beraz, saioak, ikasleentzat benetakoak eta adirazgarriak izan daitezten malgutasuna eta egokitzapena kontuan hartu beharko da.

Azkenik, Sacristanen (1988) esanetan, ebaluazioa formatiboa izan behar da, prozesuaren datuak jasoz. Informazio hau era ezberdinetan bildu daiteke: Ikasleari behatuz saioen eta ariketetan zehar, portfolio baten bitartez, egunerokoa, ariketa eta froga ezberdinak eginez, autoebaluazioen bidez eta irakasleak ezartzen dituen adierazle ezberdinen bitartez.

6. UNITATE DIDAKTIKOAREN GARRANTZIA

Unitate didaktikoa irakasle-lanaren zati bat da, eta irakasteko eta ikasteko prozesua hobetzearekin lotuta dagoen heinean funtsezko elementua bilakatzen da ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan.

Unitatearen helburua da, ikasleen beharrak eta ezaugarriak finkatzea, lortu beharreko helburuak aztertu eta hortaz, irakasle taldeak bere ikasleek ahalik eta arrakasta handiena lortzeko hartzen dituen erabakiak zehaztea. Hori dela eta, unitateak ondorengo ezaugarriak izan beharko ditu: egokitua (unitatea zuzenduta dagoen guztiei), malgua (edozein momentutan behar izanez gero, aldaketak onartzen dituen lan tresna da) eta bideragarria (baliabide, denbora eta ekintzetara egokitua, eta ekintza guztiak, ikasle guztientzat eskuragarriak).

Unitatea burutzerako orduan, kontuan izango da Euskal eskola Curriculuma, Heziberri

2020. Curriculumak ikastetxeak dituen ezaugarrietara moldatu behar da Curriculum Proiektuaren bitartez; irakaskuntza-ikaskuntza prozesua antolatzeko, programatzeko, esku-hartzeko eta jarraipena egiteko modu zehatz batera eramaten gaitu.

Unitatea irakaskuntza ikaskuntza prozesuaren planifikazioa eta garapen sistematizatua da, ikastalde jakin bati zuzendua. Helburu didaktikoa, edukiak, errekurtoak eta ebaluazio irizpideak bertan zehazten dira. Unitatearen helburu nagusia ikasleen gaitasun fisiko, afektibo, komunikatibo eta psikosozialak garatzen laguntzea da.

Guzti hori lortzeko, ikasleen interesetatik eta beharretatik abiatuko gara, beraientzako funtzionalak diren ikaskuntzak planteatuko ditugu era globalizatu eta kooperatiboan, ikaskuntza kooperatiboan oinarrituko gara programazio honetan Howard Gardnerren pedagogia abiapuntua izanik. Prozesu honetan zehar, ikasleen aniztasuna kontuan hartuko dugu eta unitatea beraien behar eta interesei erantzungo die modu hezkidetzaille eta inklusibo batean.

7. TESTUINGURUA ETA IKASTETXEA

Pedro Ignacio Barrutia ikastetxea Gasteizen kokatzen da. 276,1 kilometro karratuko azalera du hiriak eta 241.000 biztanle. Gasteizko Lakua-Arriaga auzoan kokatzen da ikastetxea. Auzoak, 27.000 biztanle inguru ditu eta hirigunetik 2 kilometrora dago.

7.1. Ikastetxea

Pedro Ignacio Barrutia ikastetxea publiko bat da. D ereduan eskaintzen du bere hezkuntza. H.H.2tik L.H.6 arteko ikasleak daude 2 lerroko ikastola honetan. Ikastetxean 37 irakasle daude guztira. Horietatik 20 Lehen Hezkuntzan aurkitzen dira. Euskarak garrantzi handia dauka eskola honen jardunean. Euskara batzorde bat dago guraso eta irakaslez osatuta dagoena eta dinamika ugari antolatzen dituzte, bai eskola orduetan bai eskola orduetatik kanpo. Hezkuntza Proiektuak eramaten dituzte aurrera: bikoteka irakurtzen, Ikaskuntza kooperatiboa, arazo egoeretan oinarritutako unitateak... Guzti hau aurrera eramateko gurasoen parte-hartzea ezinbestekoa da. Urtean zehar gurasoak batzorde ezberdinetan hartzen dute parte, Hezkuntza Proiektuak antolatutakoetan. Baina aurten, pandemia egoera dela eta, albo batera utzi dira proiektu batzuk. Halaber, guraso eskolak Euskara batzordeak antolatzen ditu Gasteizko Udalarekin, euskaraz ikasi nahi duten gurasoentzako. Esan daiteke familien parte hartzea ikastetxean handia dela.

7.2. Ikasleak eta ikastaldea

Programazioa Lehen Hezkuntzako 2. zikloko 6. Mailako ikasleei zuzendua dago eta Gorputz Hezkuntzako arloan oinarrituko da, astean 2 orduz landuko dugu eta ikasle taldea hogeita lau lagunek osatzen dute. Orokorrean, ikasle taldeak jarrera aktiboa eta motibatuta dagoen talde bat da. Hori dela eta, erritmo onean doaz eta edukiak barneratzeko ere ez daukate arazo handirik.

Taldean kanpotik etorritako ikasle bat daukagu, urte bat darama Euskal Herrian baina oraindik hizkuntzarekin arazoak ditu. Horretan laguntzeko, Hizkuntza Errefortzuko Irakasle bat (HIPI) sartzen da gelara astean 5 orduz (eguneko ordu bat) berarekin lan egitera. Ikasle honek hizkuntzarekin arazo nabaria dauka baina ez da oztopoa, HIPI eta tutorearen artean saiatzen gara materiala egokitzen beharrezko diren edukiak bereganatzen laguntzeko. Gainera, gainontzeko ikasleek ere jarrera ona izaten dute ikasle honi laguntzeko orduan. Horretaz gain, oso positiboa izaten ari da gainontzeko ikasleentzat bere presentzia, bere kultura eta ohiturak ezagutzeko aukera proposa delako eta aniztasuna elementu positibo bat dela ohartzeko balio izan die-lako.

Bestalde, Hezkuntza Premia Bereziak behar dituen ikasle bat daukagu. Ikasle honek zailtasunak ditu, adimen urritasuna dauka eta PTren eta taldekideen laguntzarekin ikasgelako erritmoa jarraitu badezake ere, bere adimen maila mugan dago. Horregatik, astean 4 orduz PTa sartzen da gelara berari laguntzera. Halaber, taldekideek asko laguntzen diote eta horri esker aniztasunari trataera egokia ematea lortzen ari dira.

8. UNITATE DIDAKTIKOA

Unitate didaktiko honetan orientazioaren gaia landuko da ikaskuntza kooperatiboa erabiliz, Howard Gardnerren Adimen Anitzen pedagogian oinarrituta. 2. zikloko 6. mailako Barrutia Ikastolako ikasleentzat bideratuta egongo da. 8 adimenak landuko dia 8 saioean zehar. Horretarako ataza ezberdinak diseinatu dira. Ariketa hauek ikasleen interesetan oinarrituta daudenez, irakaslea eta ikasleen arteko elkarrizketak agertuko dira.

Adimen batzuk, klasean egindako jarduera batzuen bitartez landuko dira. Musikala adibidez, azkenengo saioan landuko da ariketa baten bitartez. Aurreko saioetan ere adimen hau lantzeko, frontoian egiten diren ariketetan zehar musika jarriko da. Adimen intrapertsonala lantzeko, klaseko azkenengo 10 minutuak erabiliko dira. Hala ere, ikasle bakoitzak portfolio bat egingo du eguneroko baten antzera. Bertan, klasean zehar izandako bizipenak idatziko dira emozioak adieraziz. Portfolio hau idatziz eta marraztuz egingo da.

Justifikazioa

- Ikasleen interesetan oinarrituta.
- Nor bere aisialdia antolatzeko aukerak zabaldu.
- Orientazio gaitasuna, erabakitze gaitasuna eta behaketa gaitasuna garatzen dira.
- Erresistentzia lantzeko modu bat.
- Ingurumenarekiko errespetuaren garrantzia lantzeko gai aproposa.
- Motibagarria.
- 8 adimenak lantzeko aukera.

Tenporalizazioa eta kokapena

- 8 saio
- Udazken edo Udaberri aldean.
- 2. zikloko 6.maila

Lotura Kurrikularra

Unitate didaktikoaren saioak antolatzeko eta aurrera eramateko, Oinarrizko Hezkuntza Curriculum hartu da oinarritzat; bertako oinarrizko zehar-konpetentzi eta oinarrizko disziplina barneko konpetentziei erreparatuz (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, 2015).

Helburu didaktikoak

- Orientazioaren nondik norakoak ezagutzea, banaka zein taldean lan eginez, orientatzen jakiten ikasteko.
- Emozioak eta senimenduak adieaztea, eguneroko baten bitartez, haien burua hobeto ezagutzeko.
- Taldean lan egiten jakitea, ikasleak lagunduz, atazen helburuak era egokian lortzeko.
- Froga ezberdinen helburuak lortzea, banaka zein taldeka, adimen ezberdinak garatzeko.

Oinarrizko Zehar Konpetentziak

Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia

- Hitzeko eta idatzizko komunikazio jariokor, autonomo, sortzaile eta eraginkorrak egitea.
- Hitzik gabeko kodeak ulertzea eta jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia

- Informazioa interpretatzea eta ebaluatzea (pentsamendu kritikoa).
- Baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa egitea, ikasitakoa baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz.

Elkarbizitzarako konpetentzia

- Norberaren eta besteren nahiak asebate daitezen uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.
- Taldean ikastea eta lan egitea, nork bere ardurak onartuz eta helburu komunean lanetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuta.

Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia

- Planifikatutako ekintzak gauzatzea eta, beharrezkoa baldin bada, haiek doitzea.
- Egindako ekintzak ebaluatzea, haien berri ematea eta hobetzeko proposamenak egitea.

Norbera izaten ikasteko konpetentzia

- Erabakiak modu autonomoan garatzea
- Portaera soziala, morala eta emozioak autoerregulatzea.

Oinarrizko disziplina barneko konpetentziak

Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia: Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikusentzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazioegoerei aurre egiteko.

- Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea (2.multzoa): Harreman interpersoneletan nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazioegoeretan parte hartzea eta kooperatzea.

Konpetentzia motorra: Autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, ongizate osoa lortzen laguntzeko.

- Jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak garatzea, ongizate pertsonala eta soziala bermatzen duten jarduera fisikoak eta ludikoak egitea, bai banaka bai taldeka.

Matematikarako konpetentzia: Matematikako ezagutza aplikatzea eguneroko bizitzako gertaerei eta egoerei buruzko informazioak eta mezuak ulertzeko, balioesteko eta sortzeko, eta beste ezagutza-arlo batzuetan erabilgarriak direla jakitea.

- Zenbakiak eta eragiketak (2.multzoa): Zenbaki arrunten arteko eragiketak: batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa.
- Neurria (3.multzoa): Neurketa bat egiteko eta neurria adierazteko unitate egokia aukeratzea. Neurketak egitea.
- Angeluak neurtzea (3.multzoa): Sistema hirurogeitarra
- Problema ebaztea (6.multzoa): Ikerketen eta problemen soluzioak bilatzeko Matematikako zereginak berezkoak dituen norberaren jarrera egokiak garatzea eta lantzea.

Konpetentzia sozial eta zibikoa: Norbera banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi dela ulertzea, eta pertsona horiekin lanean aritzea eta antolatzea askotariko ezaugarriak eta xedeak dituzten taldeetan.

Arterako konpetentzia: Proiektuak lantzean zenbait emaitza lortzeko beharrezkoak diren prozedurak planifikatzea, ebaluatzea eta egokitzea, eta horrek guztiak dakartzan erronkez jabetzea.

- Inguruko elementuak behatzea, objektuen proportzioak, harremanak, kokapenegoerak eta haien bestelako alderdiak ulertzeko.
- Ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko irudiak eta bestelako arte-adierazpen batzuk erabiltzearen premia hautematea.

Edukiak

- Orientazioaren jatorria eta izaera
- Mapa
 - Errealitatearen marrazki bat. Ikurrak.
- Maparen erabilpena
 - Maparekin orientatzea
 - Norabidea mapan aurkitzea
 - Norabide bat errealitatean jarraitzea
- Sentimendu eta emozioen adierazpena (egunerokoaren bitartez)

Helburuak

- Orientazio kirolaren nondik norakoa ezagutzea.
- Mapa bat interpretatu eta irakurtzea.
- Orientazio oinarrizko teknikak erabiltzea.
- Orientazio froga bat burutzea.
- Sentimenduak eta emozioak modu argi batean adieraztea.

Ebaluazioa

- Egunerokoa
- Parte hartzea eta jarrera
- Ariketa praktikoak
 - Maparen irakurketa eta erabilera ikastolan
 - Azterketa ariketa (altxorra lortzea) ikastolan
 - Maparen irakurketa eta erabilera galeoi parkean (parke pirata)

Ebaluazioa irakaslearen behaketarekin egingo da aurreko puntuak kontua hartuz errubrika baten bitartez. Autoebaluazioa ere egongo da. Horretarako ikasle bakoitzak errubrika bat beteko du. (1. eranskina)

Lorpen Adierazleak

- Orientazioaren jatorria eta izaera barneratu du.
- Errealitateraen marrazki bat ikurren bidez adierazteko gai da.
- Maparen erabilpen egokia egiten du, bai orientatzeko, norabideak mapan aurkitzeko eta norabide bat jarraitzeko.
- Orientazioan lankidetzan eta lankideak errespetatuz ibiltzen daki..
- Orientazio saioetan taldearekiko jarrera eta parte hartze egokia du.
- Bere emozioak eta sentimenduak egunerokoa era argi eta garbi batean adierazteko gai da.

9. SAIOPEN DISEINUA

Elkarrizketa (Lehenengo saioa baino aste bat lehenago izandakoa)

Irakaslea: Egunon! Zer moduz asteburua? Nork kontatu nahi du asteburuan egindakoa?

Mikel: Nik kontatu nahi dut!

Markel: Nik baita!

Ainhoa: Nik!

Olatz: Nik!

... *Ikasle gehiago hitz egiteko gogoekin daude*

Irakaslea: Bueno, askok asteburuan egindakoa kontatu nahi duzue txandaka joango gara. Mikel, lehena izan zarenez hasi kontatzen.

Mikel: Ba... herrian egon nintzen aiton amonekin asteburu pasa eta igandean mendira joan nintzen gurasoekin.

Irakaslea: Ze mendi igo zenuen?

Mikel: Gorbea txiki!!

Irakaslea: Badakit zein den. Oketa deitzen da eta oso polita da. Primeran Mikel. Markel, zure txanda.

Markel: Ni bizikletan ibiltzera joan nintzen igandean. Ia ia Gasteizko buelta egin nuen gurasoekin eta arreba txikiarekin.

Irakaslea: Oso ondo txapeldun! Ainhoa, zuk zer egin zenuen asteburuan?

Ainhoa: Ba Mikel bezala mendira joan nintzen gurasoekin baina galduta egon ginen 3 orduz eta amari esker kotxera bueltatu ginen.

Irakaslea: Eta nola aurkitu zenuten kotxea?

Ainhoa: Ama orientazioari buruzko jakintzak ditu. Mapa eta iparrorratz baten bitartez kotxera bueltatzeko gai izan zen. Geunden lekuan ez zegoen koberturarik eta ezin izan genuen mugikorra erabili.

Beñat: Ala! ze guai! Iparrorratza eta guzti!

Ainhoa: Bai! Hasiera batean mendebalderantz gindoan baina aitak susmoa zuen okerreko bide bat hartu genuela eta horregatik ama mapa eta iparrorratza hartu zuen. Norabide zuzena iparralderantz zen eta.

Jon: Zer da mendebaldea eta iparraldea?

Olatz: Joe Jon, beti berdin. Ez dakizu ezer.

Irakaslea: Olatz. Zuk jakitea ez du esan nahi beste guztiek jakin behar dutenik. Mesedez Jon errespetatu.

Julen: Nik ez dakit ezta. Baina orientatzen jakitea gustatuko litzaidake.

Itziar: Bai! Super ondo egongo litzateke orientatzen irakastea Aitor (irakaslea).

Asier: Bai Itziar, super ondo egongo zen eta orientatzen ikasten dugunean parkera edo mendira joan gaitzke jolastera.

Irakaslea: Oso ideia ona izan duzue. Gainera, aste honetan, patinajearekin bukatzen dugu, beraz, orientazioa gai berria izan daiteke. Zer deritzozue?

Ikasleak: ORIENTAZIOA! ORIENTAZIOA! ORIENTAZIOA! ORIENTAZIOA!...

Amin: Aitor, Jon eta Julen bezala ez dakit zer den Iparraldea eta esan duzun beste hitz hori. Horrekin has gaitzke orientazioa ikasten.

Olatz: Puntu kardinalak ikasten has gaitzke Aitor!

Irakaslea: Bai Olatz! Puntu kardinalekin hasiko gara. Horrekin orientatzen ikasten hasi gaitzke. Beraz, hurrengo asterako begiratu interneten ea zer diren.

Ikasleak: Bale!

Irakaslea: Galderarik ez baduzue materiala jasoko dugu eta klasera igoko gara ordua dela eta!

1. Saioa: Aurre orientazio jolasak

Denbora

1 ordu

Materiala

- Patioko planoa
- Uztailak
- Konoak


Deskribapena

1. Jarduera (15 minutu)

Borobil batean bilduko dira ikasleak zein irakaslea eta aurreko klasean adostutakoaren arabera prestatutakoa azalduko zaie. Gaiari buruzko aurrezagutzak ezagutuko dira.

2. Jarduera: Puntu kardinalak kokatzea (20 minutu)

Talde osoan jorratuko den ariketa bat izango da. Lehenik, irakasleak galdetuko die ea zer dakiten puntu kardinalak buruz, ea ezagutzen dituzten eta ezagutuz gero zeintzuk ezagutzen dituzten. Lau puntu kardinalak adieraziko dira (Iparraldea, Ekialdea, Hegoaldea eta Mendebaldea) eta ondoren, puntu hauekin egin ditezkeen konbinaketak (ipar-mendebaldea, hego-ekialdea...)



Ondoren, 4 ikasleko 6 talde egingo dira eta patiora aterako gara. Iparraldea kokatzen saiatuko gara.

Ziur aski, eztabaida handiak sortuko direla ikasleen artean, beraz, zalantzak argitzeko erabiliko dugu momentu hau.

Eztabaidatu ondoren, iparraldea lurrean dauden uztailetan kokatu beharko dute. Ondoren, puntu kardinalen konbinazio posibleak adieraziko dituzte.



3. Jarduera

Bikoteka edo hirukoteka jarriko dira ikasleak. Plano bat banatuko zaie (2. eranskina). Batek, planoan izango du eta besteek markatutako ibilbidea jarraitu beharko du. Planoan konoak markaturik azalduko dira eta ibilbidea osatzeko planoan interpretatu beharko dute. Ibilbidea bukatzen duenean lehenengo ikasleak, rol aldaketa egingo da, guztiek ibilbide berdina egin arte.

Garrantzitsua izango da ibilbidean zehar planoan biratzea egiten dituzten mugimenduen arabera. Honen bitartez, ikasleei errezago egingo zaie ibilbidea jarraitzea eta irakasleari errezago izango zaio zailtasunak antzematea.

4. Jarduera (10 minutu)

Borobilean bilduko gara berriro eta klasea amaitutzat emateko ikasleek haien iritzia, emozioak, sentimenduak, gomendioak... emateko momentua izango da. Irakaslea galderen bitartez gidatu dezake hitzaldia.

- ❖ Guztiok hartu duzue parte?
- ❖ Ondo sentitu zarete? Norbait gaizki sentitu da?
- ❖ Zer iruditu zaizue proposatutako ariketak? Zailak, errezak?
- ❖ Elkarrizketa hurrengo saioari begira

Landuko diren adimenak

Matematiko, linguistikoa, naturalista, musikala, zinetiko korporala interpertsonala eta intrapertsonala

Elkarrizketa

Irakaslea: Ondo eseri borobilean eta norbaitek gaurko klaseari buruzko iritzia eman nahi badu txanda emango diot. Baita ere nola sentutu zareten adierazteko aukera izango duzue.

Zainat: Nik Aitor!

Irakaslea: Aurrera Zainat!

Zainat: Asko gustatu zait orientazioari buruzko lehenengo klase hau. Gainera, pasa den astean ez genekien puntu kardinalak ikasi ditugu.

Hamoudi: Bai! Eta gogoratu Zainat konbinaketa posibleak ere ikasi ditugula.

Ziortza: Niri gehien gustatu zaidana maparekin ibilbideak egitea izan da. Taldean lan egitea gustatu egin zait taldekideak laguntzeko aukera izan dudalako.

Mikel: Niri maparena ere asko gustatu zait baina bertan jattzen zuen gauza bat ez dut ulertu. Zergatik jartzen du 1:300. Ez dakit zertarako diren zenbaki horiek.

Irakaslea: Oso galdera ona Mikel. Norbaitek daki zer diren eta zer esan nahi duten zenbaki horiek?

Ainhoa: Nik dakit zer den, eskala adierazten dute baina ez dakit nola erabiltzen diren eta zer esan nahi duten.

Abdelkhader: Eskala maparen neurriak adierazten dute baina ez errealitatekoak. Neurri txikiagoan adierazten dira orrian sartzeko.

Irakaslea: Oso ondo Abdelkhader. Nola dakizu hori?

Abdelkhader: Pasaden egunean puntu kardinalak buruz irakurri eta gero orientazioari buruzko orrialde bat aurkitu nuen eta irakurtzen hasi nintzen. Bertan eskalarena azaltzen zen.

Irakaslea: Primeran Abdelkhader. Oso oso ondo.

Victory: Niri asko gustatu zait gaurko klasea baina hurrengorako ibilbidea guk markatu dezakegu egin beharrekoa plano batean gero, taldeka, ibilbide horiek egin.

Irakaslea: Ideia ona iruditzen zait. Beraz hurrengo klasean eskalak landuko ditugu eta ibilbideak egiten hasiko zarete gero hauek egiteko. Norbaitek zerbait gehiago esan nahi du?

Ikerne: Baiiii! Niri asko gustatu zait gaurko klasea eta hurrengo klasea oso interesgarria dirudi baina niri iparrorratza nola erabiltzen den gustatuko litzaiden. Pasaden astean Ainhoa esan zuen iparrorratzaten bitartez ez zirela galdu eta hori ikastea oso interesgarria iruditzen zait.

Ainhoa: Alaaa! Ze guai!

Mikel: Bai! Iparrorratza!

Abdelkhader: Zelako ideia ona Ikerne!

Urtzi: Oso interesgarria izango litzateke iparrorratza manejatzen ikastea.

Victory: Bai, baina... nondik aterako ditugu iparrorratza Aitor (irakaslea)?

Irakaslea: Primeran ikasleak, iparrorratzak manejatzen ikasiko dugu baina ez hurrengo klasean. aste bat utziko dizuet iparrorratz bat lortzeko eta ezin baduzue lortu esango didazue eta nik lortuko dizuet. Beraz hurrengo egunerako ez duzue ekarri behar, bakarrik adierazi behar didazue lortu ahal duzuen edo ez. Besterik, galderarik ez baduzue klasera igoko gara.

Beñat: Orduan hurrengo egunean eskalak ikasiko ditugu eta ibilbideak egingo ditugu?

Irakaslea: Hori da Beñat. Hori da erabaki duguna ez?

Ikasleak: Bai!!!!

Irakaslea: Erabilitako materiala jasoko dugu eta klasera igoko gara.

2. Saioa: Eskalak ikasten!

Denbora

1 ordu

Materiala

- Patioko mapa
- Konoak

Deskribapena

1. Jarduera (5 minutu)

Borobil batean bilduko dira ikasleak zein irakasle eta aurreko saioan egindakoa gogoratu dute. Ondoren, gaurko saioan egin beharreko atazak aurkeztuko zaizkie.

2. Jarduera (20 minutu)

Eskala zer den eta nola erabiltzen den ikasiko dugunez gaur, honi buruz zer dakiten galdetuko zaie. Ondoren, mapa batzuk banatuko zaizkie, taldeetan aztertuko dituztenak. Irakasleak hurrengo galderak egingo dizkie patioaren/ikastolaren mapa oinarritzat hartuz. Planoa 1:300 egongo da. Hau da, errealitateko 3m mapan zentimetro bat izango da.

- ❖ Ba al dakizue zer diren eskalak eta zertarako erabiltzen diren?
- ❖ Zertara laguntzen digute?
- ❖ Zer distantzia dago eserita gauden lekutik (futbol zelaiaren erdigunetik) porteriaino? (zentimetrotn? Eta errealitatean? (Pausoetan neurtuko dute. 1 pausu = 1 metro)

Galderan erantzun eta gero, binaka jarrita, pausoak emanaz futbol zelaiaren (frontoi barruan dagoena) neurriak hartuko dituzte eta paper txuri batean isladatuko duten bereganatutako iformazioa 1.300 eskalan. Egia da neruketak ez direla zehatzak izango baina garrantzitsuena kontzeptua ulertzea izango da. Mapa hau, 3. eranskinaren antzekoa izango da.

3. Jarduera (25 minutu)

Ikasleak hirukoteka jarriko dira eta aurreko ariketan egindako ikusitakoaren arabera frontoiaren mapa bat irudikatuko dute neurriak hartuz. Pauso bat metro bat. Erabiliko duten eskala 1:300. Ondoren, Ikasle bakoitzak ibilbide bat markatuko du bere planoan. Ibilbide hau egiteko konoak erabiliko ditu erreferentziak hartzeko eta konotik konora dagoen distantzia markatu beharko dute lehen aipatutako eskalan 1:300. Behin hirukoteko

partaide guztiek planoan ibilbidea markatuta dutela, beste bi taldekideek ibilbidea egingo dute, adierazitako distanziak ondo daudela konprobatuz. Behin bukatuta, rol aldaketa egingo da, ibilbide guztiak egiteko eta distantziatik ondo jarrita daudela konprobatzeko.

4. Jarduera (10 minutu)

Borobilean bilduko gara berriro eta klasea amaitutzat emateko ikasleek haien iritzia, emozioak, sentimenduak, gomendioak... emateko momentua izango da. Irakaslea galderen bitartez gidatu dezake hitzaldia.

- ❖ Guztiok hartu duzue parte?
- ❖ Ondo sentitu zarete? Norbait gaizki sentitu da?
- ❖ Zer iruditu zaizue proposatutako ariketak? Zailak, errezak?
- ❖ Elkarrizketa hurrengo sioa prestatzeko

Landuko diren adimenak

Matematiko, linguistikoa, naturalista, musikala, espaziala, zinetiko korporala, interpertsonala eta intrapertsonala

Elkarrizketa

Irakaslea: Borobilean eseri eta gaurko klaseari buruz hitz egingo dugu. Nola aurkitu zarete jardueretan zehar? Nola sentitu zarete?

Jon: Niri asko gustatu zait gaurko klasea. Eskalak nola erabiltzen ikasi dut!

Victory: Primeran pasatu dut eta gehien gustatu zaidana ibilbidea planoan irudikatzea eta egitea izan da. Eskalak pixkat kostatu zait baina ulertu ditut.

Irakaslea: Oso ondo Victory. Dudaren bat baduzu badakizu non dagoen Gorpuzt Hezkuntzako mintegia eta behar baduzu hor egongo nahiz edozein gauza azaltzeko.

Victory: Eskerrik asko Aitor. Behar izanez gero mintegira joango naiz.

Irakaslea: Besteei berdin, edozer behar izanez gero mintegira etorri eta hortze egongo naiz laguntzeko prest.

Ikasleak: Ondo Aitor!

Irakaslea: Beste norbaitek zerbait adierazi nahi du?

Ainhoa: Niri asko gustatu zait ibilbidea eskalarekin irudikatze eta gero taldeka hauek egitea. Oso interesgarria iruditu zait. Eta beste gauza bat Aitor, iparrorratza lortu dut!

Irakaslea: Pozten naiz Ainhoa. Hori hurrengo kontua da. Nortzuk ez duzue lortu iparrorratzik?

Iparrorratza lortu ez duten ikasleak eskua altxatu dute

Irakaslea: Bat, bi, hiru, lau... zortzi. Zortzik ez duzu lortu iparrorratza hurrengo klaserako. Ondo, ez kezkatu. Hurrengo klaserako nik ekarriko dizkizuet. Eta iparrorratza ekarri ahal duzuenok hurrengo klaserako ekarri mesedez.

Ikasleak: Baiiii!

Irakaslea: Galdera gehiagorik ez baduzue materiala jasoko dugu eta klasera igoko zarete.

Ikasleak: Agur Aitor!

Irakaslea: Agur!

3. Saioa: Iparrorratza manejatzen

Denbora

1 ordu

Materiala


- Iparrorratza
- Konoak
- Orri zuriak
- Arkatza/Boligrafoa/Margoak

Deskribapena

1. Jarduera: Iparrorratzaren azalpen teorikoa (15 minutu)

2. Jarduera: Norabidea asmatzen (5 minutu)

Irakaslea graduak erabiliz norabide bat markatuko du eta ikasleak besoa luzatuz markatu beharko dute. Iparraldea, mendebalde, ekialdea eta hegoa zehazturik geratuko dira ikasleek haien burua kokatu dezaten. Futbol edo saskibaloiz zelaiaren puntu ezberdinak hartu daitezke kontuan. Adibidez, irakasleak 180° esaten badu ikasleek haien atzekaldea seinatu beharko dute.



3. Jarduera: Norabidea jarraitzen (15 minutu)

Mugimenduen sekuentzia enkadenatu bat egingo dugu. Talde txikietan edo banaka egin daitezkeen jolas bat da. Frontoian zehar puntu ezberdinak markatuko dira konoen bitartez. Irakasleak norabide bat esango du, adibidez 90° , eta ikasleek norabide hori jarraituz markatutako lekura heldu behar dira. Norabidea, heltzen diren konoaren kokapenaren arabera emango da eta ez hasierako puntuaren kokapena kontuan hartuz.


- **Aldaerak**

- ❖ Konora ailegatzten den lehenengo ikaslea, ondo egin duenez, atsedena hartzeko esan ahal diogu. Horretarako, lehenengo 6 norabideak ondo egin behar izango ditu. Horrela gaizki egiten dutenek aukera gehiago izango dituzte. Atsedenean dagoen ikaslea laguntzaile moduan ere aritu daiteke.

4. **Jarduera: Ibilbidea asmatzen (15 minutu)**

Ikasleak binaka jarriko dira eta futbol zelaiaren mapa bat emango zaie biontzat. Futbol zelaian kono ezberdinak jarriko dira eta 10 mugimendu (kono batetik bestera mugimendu bat izango da) osatzen duen ibilbide bat marraztu beharko dute mugimendu bakoitzaren graduak adieraziz. Ondoren, beste bikote batekin bilduko dira eta adierazitako mugimenduak esan beharko dizkiote beste bikoteari.

Hauek, papera ikusi gabe mugimenduak futbol zelaian adierazi beharko dituzte konoetatik mugituz.



5. **Jarduera: Klaseko feedbacka (10 minutu)**

Borobilean bilduko gara berriro eta klasea amaitutzat emateko ikasleek haien iritzia, emozioak, sentimenduak, gomendioak... emateko momentua izango da. Irakaslea galderen bitartez gidatu dezake hitzaldia.

- ❖ Guztiak hartu duzue parte?
- ❖ Ondo sentitu zarete? Norbait gaizki sentitu da?
- ❖ Zer iruditu zaizue proposatutako ariketak? Zailak, errezak?

Lantzen diren adimenak

Matematiko, linguistikoa, naturalista, musikala, espaziala, zinetiko korporala,

interpertsonala eta intrapertsonala

Elkarrizketa

Irakaslea: Eseri beti bezala borobilean eta gaurko klaseari buruz hitz egiten hasiko gara. Zer moduz moldatu zarete iparrorrazarekin? Eta graduak erabiliz? Zaila izan zaizue ariketak egitea?

Abdelkhader: Askok gustatu zait iparrorrazarekin jolastea baina graduarekin ibiltzea hasiera batean asko kostatu zait. Gero, taldeka haritu garenean oso ondo ibili naiz taldekideen laguntzarekin.

Irakaslea: Pozten nau zuen artean laguntzen ikustea. Primeran Abdelkhader.

Ainhoa: Ni banekien nola orientatu iparrorrazarekin, hala ere, taldekideak ere lagundu ditut eta primeran pasatu dugu.

Mikel: Niri graduak adieraztea kostatu zait pixkat. Ez zait zaila iruditu baina oso ondo fijatu behar zara zehazki adierazteko.

Victory: Ni ondo moldatu naiz. Ez zait saila iruditu.

Irakaslea: Beraz, graduak adierazteko zailtasunak izan dituzue?

Abdelkhader: Bai!

Mikel: Bai!

Jon: Bai!

Urtzi: Bai!

Zainat: Bai!

Beñat: Bai!

Amin: Bai!

Itziar: Bai!

Asier: Bai!

Andrei: Hauk ikusita, zergatik ez dugu hurrengo egunean gaur arte ikusitakoa birpasatzen?

Irakaslea: Ideia ona da kontzeptuak hobeto barneratzeko. Ados jartzen bazarete hurrengo klasean ikusitakoa birpasatuko dugu. Zer deritzozue?

Ikasle guztiek baietz adierazi dute

Eneko: Baina gauza bat, fijatzen egon naiz eta eman diguzun planoetan ez dira adierazten parkeko bi kolunpio eta ezta porteria bat. Zergatik da hori?

Urtzi: Ala, ni horretan ez naiz fijatu Eneko.

Zainat: Zelako bista ona duzun Eneko.

Irakaslea: Arrazoia duzu Eneko. Pasatuko zitzaidan planoaren egiterakoan.

Beñat: Marraztu dezakegu planoaren faltatzen diren elementuak?

Irakaslea: Bai, noski. Marraztu baina gogoratu nola adierazten diren.

Irune: Eta zergatik hurrengo klasean ez dugu horrelako ariketarik egiten? Planoaren marraztu zenbait elementu gabe eta guk aurkitu behar ditugu zeintzuk falta diren.

Maitane: Bai, bai, bai! Niri marraztea pilo bat gustatzen zait.

Julen: Baina hurrengo klasean ikusitakoa birpasatuko dugula adostu dugu Irune.

Irune: Bai Julen. Ikusitakoa birpasatu dezakegu eta horrelako ariketaren bat egin ere.

Julen: Horrela bada ondo iruditzen zait.

Mikel: Niri ere ondo iruditzen zait.

Victory: Nik nahiago dut aurrekoa birpasatzea marraztea gustatzen ez zaidalako baina ados jartzen bagara berdin zait.

Zainat: Ez esan gezurrik Victory, oso ondo marrazten duzula.

Abdelkhader: Niri ondo iruditzen zait.

Ainhoa: Niri baita!

Asier: Niri baita!

Itziar: Niri baita!

Amin: Niri baita!

Irakaslea: Orduan ikusitakoa birpasatuko dugu eta elementuekin zerikusia duten ariketaren bat egitea proposatzen duzue ez?

Ikasle guztiek baietz adieratzen dute.

Irakaslea: Primeran orduan. Materiala jasoko dugu eta klasera igoko gara. Gogoratu ere hurrengo klaserako iparrorratza ekarri behar duzuela. Ez ahaztu!

4. Saioa: Gimnasioko mapa marraztu + ibilbidea jarraitu

Denbora

1 ordu

Materiala

- Orri zuriak
- Arkatza eta borragoma
- Erregela
- Koloretako margoak
- Patioko mapak
- Letrak edo zenakiak lurrean jartzeko

Deskribapena

1. Jarduera (5 minutu)

Borobil batean bilduko dira ikasleak zein irakasle eta aurreko saioan egindakoa gogoratu dute. Ondoren, gaurko saioan egin beharreko atazak aurkeztuko zaizkie.

2. Gimnasioko mapa marraztu (25 minutu)

Ikasleek orri zuri batean bere gimnasioko mapa marraztuko dute (3. eranskinaren antzera geratu beharko da). Neurriak hartzeko pausoak erabiliko dira eta guztien artean erabiliko diren ikurrak adostuko dira.

• Atazak

- ❖ Binaka jarrita bikotekide batek mapa egin ondoren margo bat ezkutatuko du kiroldegiaren barruan. Taldekide bakoitzak bere mapan norabidea eta noranzkoa adieraziko du margoa non ezkutatu duen jakinaraziz. Ondoren, taldekideak mapa pasako dio eta hau aztertuz, margoa aurkitu beharko du
- ❖ Irakasleak patioko mapa zati txikitan moztuta banatuko die ikasleei eta taldeka,

mapa osoa sortu/eratu beharko dute. (4.eranskina)

- ❖ Ikasleei patioko mapa bat emango zaie. Mapa honetan, patioko zenbait elementu agertuko dira marraztu gabe eta ikasleek zein elementu falta den/diren asmatu beharko dute. Kiroldegia, emergentziazko eskailera, porteria bat eta bi kanasta kenduko dira. (5.eranskina)
- ❖ Errealitatean agertzen ez diren hainbat elementu marraztea eta ikasleek asmatu beharko dute zeintzuk diren.

3. Jarduera: Zein da zuzena? (20 minutu)

4ko taldeetan jarriko dira ikasleak. Talde bakoitzari mapa bat emango zaio ibilbide batekin eta hau jarraitu beharko dute atera gabe. Ibildean zehar, geldiene puntu batzuk aurkituko dituzte, kono gorri baten bidez markaturik daudenak. Hauetara heltzerakoan norabide bat (gradueta adierazita) aurkitu dute (adibidez 60°). Kono gorriaren inguruan beste hiru kono ezberdin jarriko dira (1-2-3 zenbakiekin). Iparrorrazaren erabilerarekin eta emandako norabidearekin ondo kokatuta dagoen konoa aztertu beharko dute. Lortu dutenean kontrol fitxan apuntatuko dute konoaren zenbakia. (Lehehengo kontrol gunea 1 zenbakia duen konoa). 8 kono jarriko dira eta talde bakoitza ibilbideko puntu ezberdin batetik aterako da ez gurutzatzeko. (6. eranskina)

4. Jarduera (10 minutu)

Borobilean bilduko gara berriro eta klasea amaitutzat emateko ikasleek haien iritzia, emozioak, sentimenduak, gomendioak... emateko momentua izango da. Irakaslea galderen bitartez gidatu dezake hitzaldia.

- ❖ Guztiok hartu duzue parte?
- ❖ Ondo sentitu zarete? Norbait gaizki sentitu da?
- ❖ Zer iruditu zaizue proposatutako ariketak? Zailak, errezak?

Landuko diren adimenak

Matematiko, linguistikoa, naturalista. artistikoa, espaziala, zinetiko korporala interpertsonala eta intrapertsonala

Elkarrizketa

Irakaslea: Eseri beti bezala borobilean eta gaurko klaseari buruz hitz egiten hasiko gara. Zer moduz moldatu zarete gaur? Hobeto moldatu zarete graduekin?

Abdelkhader: Bai!

Mikel: Bai!

Jon: Bai!

Urtzi: Bai!

Zainat: Bai!

Beñat: Bai!

Amin: Bai!

Itziar: Bai!

Asier: Bai!

Ainhoa: Ni graduekin ere ondo moldatu naiz baina elementuak irudikatzerakoan edo kentzerakoan bakoitzak nahi izan duenmoduan marraztu ditu eta beraz, zaila izan da batzuk identifikatzea.

Zainat: Bai, arazoa hori dela uste dut. Ez genekiela nola irudikatu objektuak.

Irakaslea: Orduan zailtasuna izan duzue lelemtuak irudikatzerakoan ezta?

Ikasle guztiek baietz adierazi dute

Irakaslea: Orduan ados egongo zarete hurrengo klasean honi buruzko ariketaren bat egitean?

Ikasle guztiek baietz adierazi dute

Mikel: Ondo iruditzen zait baina hurrengo klaserako iparrorratza manejatzen dakigula zerbait ezberdina egin genezake.

Abdelkhader: Ainhoaren familia kotxea aurkitu behar zuen, zergatik ez guk beste objekturen bat aurkitu?

Jon: Bua Jon, zelako ideia ona. Ikastolan zehar zerbait eskutatu genezake eta beste batek hori aurkitzea.

Irakaslea: Eskola barruan deritzozu?

Jon: Bai, eskola barruan. Geletan izan ezik eta patioan.

Irene: Ikusitako hobeto lantzeko binaka egin dezakegu. Bikotekide batek zerbait eskutatu eta besteak aurkitzea.

Beñat: Baina hori postarik gabe oso zaila izango da. Egun osoan egon gaiteke objektua bilatzen.

Eduarne: Gaur arte ikusitakoa erabili dezakegu. Elementua leku batean iskutatu eta norabide zein noranzkoa, graduetan eta metrotan eman ahal diogu hau aurkitzeko.

Ainhoa: Asko gustatzen zait zure ideia.

Itziar: Niri ere!

Asier: Niri ere!

Abdelkhader: Niri ere bai!

Juen: Niri ere!

Beñat: Niri ere!

Zainat: Niri ere bai!

Amin: Niri ere!

Victory: Niri ere!

Urtzi: Niri ondo iruditzen zait baina objektu ghiago aurkitzea ere ondo egongo litzateke. Eta taldeka egitea ez binaka.

Irakaslea: Uste dut guztiok ados zaudetela Eduarne esandakoarekin. Urtzi esandakoa egin daiteke baina hurrengo klaserako ez du denborarik emango. Zergatik ez dugu honi buruz hurrengo klasearen ostean hitz egiten?

Ikasle guztiek baietz adierazi dute

Irakaslea: Ba horrela egingo dugu hurrengo klasean. Utzi mapak hemen eta klasera igoko zarete. Gainera gaur naturreko azterketa duzue. Zorte on guzitei!

Ikasleak: Eskerrik asko Aitor! Hurrengo egunera arte!

5. Saioa: Mapak antzematen	
Denbora	1 ordu
Materiala	<ul style="list-style-type: none"> • Patioko mapa • Ezkutatuko den elementua (konoa, uztaila...)
Deskribapena	
<p>1. Jarduera (5 minutu)</p> <p>Borobil batean bilduko dira ikasleak zein irakasle eta aurreko saioan egindakoa gogoratu dute. Ondoren, gaurko saioan egin beharreko atazak aurkeztuko zaizkie.</p> <p>2. Jarduera: Mapa interpretatzen (15 minutu)</p> <p>Binaka jarriko dira ikasleak eta frontoitik aterako gara patiora. Bikote bakoitzak patioko mapa bat izango du . Bertan, ibilbide bat egongo da markatuta, guztiok batera egin behar dutena. Irakaslea barne.</p> <p>Ibilbidean zehar hainbat elementuetatik igaroko dira eta mapa behatuz nola adierazita dauden aztertu beharko dute.</p> <ul style="list-style-type: none"> ❖ Nola dago irudikatuta frontoia? Eta kiroldegia? Frontoi atzeko zelaia eta zuhaitzak? Eskola kanpoko zutabeak? ❖ Zein eskalatan dago irudikatuta mapa? (Hemen elementu baten neurri erreala hartu beharko dute eta maparekin konparatu eskala ateratzeko) <p>3. Jarduera: Ezetz aurkitu altxorra! (30 minutu-15 taldekide bakoitza)</p> <p>Aurreko bikoteak mantenduz, bi talde egingo dira. Bikote bakoitzeko pertsona bat talde batean eta bestean. Behin taldeak osatuta daudela, talde bat frontoian geratuko da eta bestea patiora aterako da. Kanpoan daudenei elementu bat emango zaie izkutatu behar dutena. Behin izkutatuta mapan borobil baten bidez irudikatu beharko dute, baita metrotan adieraziz eta graduetan. Ondoren, frontoian dauden ikasleen bila joango da irakaslea eta patiora aterako dira haien bikotarekin jartzeko. Mapa emango zaie eta azalduko zaie elementu bat aurkitu behar dutela, borobil baten bidez irudikatuta dagoena. Orientatuz elementua aurkitu beharko dute. Elementuaren kokapena ez da zehazki emango. Bertara ailegatzen direnean aurkitu beharko dute,</p> <p>Behin elementu guztiak aurkitu direla edo adostutako denbora amaituta dagola rolak aldatuko dira.</p>	

4. Jarduera: Klaseko feedbacka (10 minutu)

Borobilean bilduko gara berriro eta klasea amaitutzat emateko ikasleek haien iritzia, emozioak, sentimenduak, gomendioak... emateko momentua izango da. Irakaslea galderen bitartez gidatu dezake hitzaldia.

- ❖ Guztioak hartu duzue parte?
- ❖ Ondo sentitu zarete? Norbait gaizki sentitu da?

Zer iruditu zaizue proposatutako ariketak? Zailak, errezak?

Landuko diren adimenak

Matematiko, linguistikoa, naturalista. artistikoa, espaziala, zinetiko korporala interpertsonala eta intrapertsonala

Elkarrizketa

Irakaslea: Eseri beti bezala borobilean eta gaurko klaseari buruz hitz egiten hasiko gara. Zer moduz moldatu zarete gaur? Ikasi duzue nola marraztu elementuak? Eta altxorra guztiok aurkitu duzue?

Victory: Zainat eta biok oso ondo moldatu gara, ia ia ez dugu arazorik eduki bata bestearen altxorra aurkitzeko. Bion artean lagundu gara eta primeran pasatu dugu.

Beñat: Ba nik Julenen adierazpenak ez ditut ondo ulertu eta pilo bat kostatu zait altxorra aurkitzea. Graduak gaizki adierazi ditu eta hasieran ez nau asko lagundu. Gero ohartu eginda gaizki adierazita zituela eta zuzendu egin du. Hala ere altxorra jarri duen lekua zaila zen ikusteko.

Julen: Gauzak ez dira errez jarri behar. Pixkat izkutatu dut baina ikusten zen non zegoen Beñat.

Beñat: Ez zen ia ikusten. Nirea leku argiago batean zegoen. Ez dzu arazo handirik izan.

Irakaslea: Bueno, arazo txiki hauek kenduta ez duzue arazo gehiagorik izan altxorra aurkitzeko ez?

Beñat: Ez!

Julen: Ez!

Irakaslea: Besteok, arazorenbat izan duzue?

Mikel: Ez

Ander: Ez

Iker: Ez

Abdelkader: Ez

Amin: Ez

Ainhoa: Ez

Unai: Ez

Irune: Ez

Irakaslea: Pasa den klasean Urtzik esan zuen gaurko jolasa egin nahi zuela baina pista gehiagorekin.

Urtzi: Bai Aitor, bai! Ez dakit ikastolatik kanpo joan gaitezen jolastera baina hainbat pistarekin egin dezakegu jolasa.

Zainat: Bai! Eta pista horiekin gero zerbait egitea. Ez aurkitzea pistak aurkitzeagatik. Zentzu bat edukitzea.

Mikel: Ez dizut ulertu.

Zainat: Ba adibidez altorra aurkitzen dugunean, paper bat izan daitekeena, bertan zeozer aurkitzea eta pista guztiak batuta zeozer deszifratzea.

Mikel: Orain ulertu zaitut.

Amin: Ezin badugu ikastolatik kanpo atera patioan eta eskolan bertan egin dezakegu.

Irakaslea: Hurrengo klaserako ezingo gara ikastolatik atera. Baliteke euria egitea eta kasu horretan hobeto gaude eskolan. Hurrengo astean, baimena ematen badidate zuzendariek parke batera irten gaiteste.

Asier: Bai, parkera! Hemen ondoan galeoi parkea dago, oso handia da eta bertara joan gaiteste.

Irakaslea: Beraz, ados zaudete hurrengo klasean altorraren jolasa egitean baina pista gehiagorekin?

Ikasle guztiak baietz esaten dute

Irakaslea: Ondo orduan. Hurrengo egunean hori egingo dugu eta saiatuko naiz hurrengo asterako baimena eskuratzen parkera joateko. Materiala jasoko dugu eta klasea igoko zarete. Hurrengo egunera arte!

Ikasleak: Agur!

6. Saioa: Mapak antzematen

Denbora

1 ordu

Materiala

- Iparrorratzak
- Mapak
- Norabide-distantzia fitxa
- Kontrol fitxa

Deskribapena

1. Jarduera (10 minutu)

Aurreko klasean egindakoa gogoratuko da eta gaurko klasean egin beharreko ataza azalduko zaie.

1. Jarduera: Iparrorratza gidari! (40 minutu)

4ko taldeetan banatuko dira ikasleak. Talde bakoitzari mapa bat banatuko zaio.

Laukoteak sortuko dira eta 10 mapa egongo dira. Mapa bakoitzak leku ezberdin bat adieraziko du non letra bat ezkutatu den. 10 letrak erabiliz hitz bat sortu beharko dute.

Patio osoan jolastuko da. Orientatzeko mapa bakoitzean emango zaien argazkia erabiliko dute. Gero han, letra bilatu beharko dute. Ez da behar justu argazkian agertzen den toki berean egon behar, baizik eta bere ingurunean jolasa zailtzeko. (7. 8. 9. 10. 11. 12. 13. 14. 15 eta 16.. eranskinak)

❖ **Aldaerak**

- Mapa anitzekin. Puntu bakoitzeko mapa bat.
- Puntuak sakabanatuta emanez. Talde bakoitzari bat. Joan etorriak egin puntu bakoitza aurkitu eta gero.
- Erreleboka. Taldekide bakoitzak posta kopuru bat.

Ikasleei emango zaien informazioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
25m	32m	15m	65m	38m	22m	17m	19m	32m	41m
60°	45°	220°	0°	320°	270°	230°	310°	95°	160°

2. Jarduera: Klaseko feedbacka (10 minutu)

Borobilean bilduko gara berriro eta klasea amaitutzat emateko ikasleek haien iritzia, emozioak, sentimenduak, gomendioak... emateko momentua izango da. Irakaslea galderen bitartez gidatu dezake hitzaldia.

- ❖ Guztioak hartu duzue parte?
- ❖ Ondo sentitu zarete? Norbait gaizki sentitu da?

Zer iruditu zaizue proposatutako ariketak? Zailak, errezak?

Landuko diren adimenak

Matematiko, linguistikoa, naturalista, musikala, espaziala, zinetiko korporala, interpertsonala eta intrapertsonala

Elkarrizketa

Irakaslea: Nola moldatu zarete gaurko pistak aurkitzen? Arazorik izan duzue?

Ainhoa: Niri asko gustatu zait. Gainera taldeka egitean arazoak konpontzea errazagoa izan da.

Irakaslea: Arazorik eduki duzue?

Ainhoa: Gauza batzuetan ados jartzen ez ginelako bain arrazoituz pistak lortu ditugu.

Asier: Gure artean ondo moldatu gara baina batzuk ez dute ia ia ezer egin. Bakarrik zuregana joan garenean hitz egiteko.

Irakasle: Badakit Asier. Zuk zure lanarekin oso pozik egon behar zara. Besteekin hitz egingo dut.

Urtzi: Gu oso ondo moldatu gara baina bi pista aurkitzea asko kostatu zaigu. Ez dakit mugitu dituzten edo ez baina batzuk nahiko ezkutatuta zeuden.

Irakaslea: Egia da pare bat gehiago ezkutatu ditudala baina ez arazo handirik edukitzeko.

Irakaslea: Norbaitek zerbait gehiago dauka esateko?

Mikel: Bai! Baimena lortu duzu hurrengo klasean parkera joateko?

Beñat: Hori hor!

Julen: Bai parkera!

Irakaslea: Albiste honak ditut. Hurrengo klasean parkera joango gara. Arratsalde horretan bakarrik Gorputz Hezkuntza izango duzu. Arratsaldeko bi orduak elkartuko ditugu orientazio jolasean jarduteko.

Irune: Ze ondoo!! Matematika galduko dugu!

Beñat: Ez! Matematikak ez! Niri asko gustatzen zaizkit! Zergatik ez dugu ingelesa galtzen?

Aimen: Edo musika?

Irakaslea: Lasai egon. Ordu hori tutoretza batean berreskuratuko duzue. Hori adierazi dit zuen tutoreak.

Victory: Eta pistetan zergatik ez dugu irakasgai guztiekin erlazioa duen zeozer egiten? Pista aurkitu eta bertan matematika lantzeko problemarekin bati soluzioa aurkitu.

Zainat: Eta musikan abesti bat jo!

Asier: Hori egin dezakegu irakasgai guztiekin.

Irakaslea: Asko gustatzen ari zait zuen proposamen hau. Irakasgai ezberdinak landuko ditugu hurrengo egunean. Pista hauek aurkitzeko ikasitako baliatu behar zarete. Gaurkoan egin duzuen bezala. Zer deritzozue?

Ikasleak: Bai! Parakera!

Irakaslea: Orduan horrela planteatuko dut hurrengo saioa. Prestau parkera joateko! Materiala jaso eta klasera igoko zarete. Hurrengo egunera arte!

Ikasleak: Agur Aitor!

7. eta 8. Saioak: Bagoaz parkera!

Denbora	2 ordu
Materiala	<ul style="list-style-type: none"> • Mapak • Pista fitxak • Talde fitxak
Deskribapena	
<p>Orientazio azkenengo klase honetan, ikastolan ikasitako guztia praktikan jarriko dugu pisten jolas bat eginez. Klase osoa 6 taldeetan banatuko da, 4 pertsonako taldeak osatuz. Ariketa taldeetan eginez, adimen interpertsonala landuko da. Haien artean elkarrizketak,</p>	

eztabaidak.. erabakiak hartzeko. Talde bakoitza leku ezberdin batetik hasiko da pistak bilatzen. 10 posta jarriko dira non inteligentzia ezberdinak landuko diren. Frogak aurkituko dituzte pisten fitxetan (18.eranskina) eta hauek asmatuz gero klabea asmatzeko hizki bat lortuko dute.


Aldi berean, egunerokoa osatuz, adimen interperersonala landuko da. Bertan haiek bizipenak eta emozioak adieraziko dituzte gogeta baten bidez.

Adimen espaziala berriz, mapen irakurketan landuko da. Gainera, beste taldeari egin beharreko pistan ere landuko dute.

KLABEA: P.I.BARRUTIA (ALTXORRA IREKITZEN DUTEN TALDEAK 0,5 PUNTU GEHIAGO IZANGO DUTE NOTAN)

Pisten Fitxak

- 1. Pista (adimen linguistikoa):** Adierazi puntu kardinalak eta hauen konbinaketa posibleak.
 - **Erantzuna:** Iparraldea, Ekialdea, Hegoaldea, Mendebaldea, Ipar Ekialdea, Hego Ekialdea, Ipar Mnedebaldea eta Hego Mendebaldea.
- 2. Pista (adimen logiko-matemaikoa):** Problema matematiko bati soluzioa eman.
 - **Problema:** Hasiera puntutik parkeko Iparralderago dagoen punturaino 227,5 metro daude. Taldean 5 pertsona bazaerete, zenbat metro egingo dituzue guztira?
- 3. Pista (adimen linguistikoa):** Zeumugarekin maitemindutako gezi bat, egiten duena axola ez duena beti esaten duena non..
Soluzioa:Iparrorratza
- 4. Pista (adimen zinetiko-korporala):** Puntu kardinal bat hartu (Iparraldea, Ekialdea, Hegoaldea, Mendebaldea) eta hizkiak sortu gorputza erabiliz. Taldeko kide guztiek, gutxienez, letra batean atera behar dira.



5. **Pista (adimen musikala):** Abesti baten zati bat eman eta amaiera asmatu. Zentzuzkoa izan behar da. Bi estrofa gehiago idatzi beharko dute.

Zuretzat ilargia lapurtuko nuke gauero
 Eta zu itsu zaude bere argia ikusteko
 Irrifarrez gero minez....

Ilargia, Ken Zazpi


Lurretik lorera, loretik bihotzera
 legetatik urrun, malkotatik gertu
 esaidak lagun...

Begitara begira, Vendetta

Denok ez dugu berdin
 Kontatzen istoria,
 Zaila da ulertzea
 Bestearen egia...

Zapalduen olerkia, Ken Zazpi

6. **Pista (adimen logiko-matematikoa):** Hurrengo sudokua bete



7. **Pista (adimen musikala):** Eskuak eta gorputz erabiliz musika erritmo bat sortu eta taldekide guztien artean aldi berean egin.

8. **Pista (adimen naturalista):** Pista honetan poltsa bat aurkituko duzu. Bertan parkean zehar ikusten dituzuen zakar guztiak hartu eta bertan gorde behar dituzue. Gorde eta pista guztiak bukatu eta gero parkea garbituko dugu. Zaindu dezagun gure ingurunea!

9. **Pista (adimen espaziala):** Egokitu zaizuen taldeari azkenengo norabidea eta noranzkoa adieraziko diezue klasean ikusi dugun modura. Graduekin eta metrotan neurtu behar duzue. Gogoratu pauso bat metro bat dela.

10. **Pista:** Aurreko taldeak adierazitako puntuan talde argazki bat egin. Ondoren, talde horrek konprobatuko du puntua ondo aurkitu duten edo ez.

Landuko diren adimenak

8 adimenak landuko dira pisten edota frogen bitartez.

10. ONDORIOAK

Gero eta kontzienteago gara hezkuntzan adimena ez dela bakarrik irakurtzen, idazten, batzen eta kentzen jakitea. Horregatik, trebetasun tradizionalaz gain, beste alderdi batzuk ere hartu behar ditugu kontuan, gorputz adimena, adimen emozionala edo besteekin harremanak izateko gaitasuna, adimen interpersonala, besteak beste.

Lehendabizi, nabarmendu nahiko nuke garrantzitsua dela gure lehenengo hezkuntza etapatik 8 adimenak garatzea. Modu bateratuan garatzean, prest egongo ginatke eguneroko arazoei eta gatazkei aurre egiteko. Gardnerrek esaten duen moduan, adimen guztiak erabiltzea da gizaki egiten gaituena. Bakoitzak, lau adimen garatuago izango ditu baina hauek era aproposan lantzen baldin badira, guztiak garapen osoa lortuko lukete.

Konfinamendua izan dela eta, argiago ikusi dut adimen guztiak garatzearen garrantziaz. Ikasleak bere emozioak kudeatzeko beharra dute eta beste ikasleekin harremanetan egotea. Hezkuntza, adimen linguistiko eta adimen matematikoaz haratago doa. Ikasleak ikaskuntza prozesu aberasgarri bat izan behar dute txikitatik, adimen anitz guztiak barneartzen duena. Guztiak ez dira onak izan behar matematiketan edo hizkuntzetan. Haien interesak kontuan hartu behar ditugu eta ohartarazi natura gustoko duten ikasleak izango ditugula gure geletan, edota dantzan apartak direnak eta pianoa izugarri ondo jotzen dutenak. Pandemiak erakutsi digu zer nolako garrantzia duen eta zer nolako beharra dugun beste pertsonekin erlazionatzeko, naturaz gozatzeko, kirola egiteko edota musika entzutea edo margotzea egunerokotasunetik deskonektatzeko. Beraz, hezkuntzak, adimen guztiak hezi beharko lituzke, ahulak indartuz eta indartsuak sendotuz.

Beharrezkoa da haurren hezkuntzako eragile nagusiak, familia eta eskola, adimen anitzen garapena sustatzea. Trebetasun ezberdinak ikastea eta praktikatzea, hala nola ikaslea gai izatea bere emozioak adierazteko, lankideak errespetatzeko, natura errespetatzeko eta musika erabiltzeko, besteen artean. Familiak zeregin garrantzitsua du adimen anitzen garapenean, hurrek ikaskuntza egoerak eskaintzen dituzten trebetasunak kontuan hartzen baititu. Era berean, kontuan izan behar da haurra zein arlotan nabarmentzen den, zer gustatzen zaion eta zer formatan ikasten duen hobeto, horrek asko laguntzen baitu adimen anitzen garapenean.

Azkenik, eskola, ikasleak arazoak konpontzeko, sortzeko, buruaz jabetzeko eta benetako arazoei aurre egiteko esparru bat izan behar da. Leku eroso bat non haien adimenak era aberasgarri eta nahien arabera garatzen diren. Adimen anitzen teoriak gama

zabal bat eskaintzen du gaitasun kognitiboak garatzeko. Bakoitzari behar duena emateko aukera ematen du, eta bakoitzari bere adimenak ahalik eta gehien garatzeko aukera ematen dio.

11. BIBLIOGRAFIA

- Armstrong, T., & Gardner, H. (2006). *Inteligencias múltiples en el aula: Guía práctica para educadores*. Paidós.
- Armstrong, T., Rivas, M. P., Gardner, H., & Brizuela, B. (1999). *Las inteligencias en el aula*. Buenos Aires: Manantial.
- Avila, A. M. (1999). *Inteligencias múltiples: Una aproximación a la teoría de Howard Gardner*. Horizontes Pedagógicos.
- Coll, C. (1991). *Psicología y Currículum*, 1. edizioa. Mexico. Paidós.174. orr. (Cuadernos de Pedagogía).
- Gardner, H. (1983). *Multiple Intelligences*.
- Gardner, H. (1987). *La teoría de las inteligencias múltiples*. Santiago de Chile: Instituto Construir. Hemendik berreskuratua http://www.institutoconstruir.org/centro_superacion/La%20Teor%EDa%20de.
- Gardner, H. (1994). *Estructuras de la Mente: La Teoría de las Inteligencias Múltiples*. Fondo de Cultura Económica de España.
- Gardner, H. (2009). *La educación del futuro. La educación de la mente y el conocimiento de las disciplinas: Lo que todos los estudiantes deberían comprender. X Congreso de escuelas católicas, Toledo*.
- Gardner, H. (2016). *Estructuras de la mente: la teoría de las inteligencias múltiples*. Fondo de cultura económica.
- Guzmán, B; Castro, S. (2005) *Las inteligencias múltiples en el aula de clases* Revista de Investigación, 58. zenb., 177-202 or. Universidad Pedagógica Experimental Libertador Caracas (Venezuela).
- Heziberri, (2020). *Oinarrizko hezkuntzako curriculum*. Hemendik berreskuaua: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_pr oyec/adjuntos/OH_curriculum_oso.pdf
- Luz de Luca, S. (2010). *El docente y las inteligencias múltiples*. Revista Iberoamericana de Educación, ISSN: 1681-5653.

Ruiza, M., Fernández, T. y Tamaro, E. (2004). Biografía de Howard Gardner. En Biografías y Vidas. La enciclopedia biográfica en línea. Barcelona (España).

Sacristán G. (1988) El currículum: una reflexión sobre la práctica. Morata. Madrid.

Schneider, S. (2003) Cómo desarrollar la inteligencia y promover capacidades. Argentina, CADIEX Internacional S.A

12. ERANSKINAK

1. Eranskina: Ebaluazio errubrikak


Autoebaluazio Errubrika					
	GU	NA	O	OO	BI
Orientazioar en nondik norakoak barneratu ditut.					
Badakit iparrorratza manejatzen.					
Badakit plano/mapa bat marrazten inguruko elementuak kontuan hartuz.					
Ikaskideak errespetatu eta lagundu ditut prozesuan zehar.					
Klaseko giroa ona izateko lagundut.					
Gai naiz nire emozioak eta sentimenduk eguneroko batean adierazteko.					

Badakit mapa baten bitartez elementu bat aurkitzen.					
Galeio parkean taldekideak lagundu ditut eta jarrera aktiboa izan dut pistak eta soluzioa aurkitzeko.					
Orokorrean nota hau ematen diot nire buruari.					
Oharrak					


Ebaluazio Errubrika					
	GU	NH	O	OO	BI
Orientazioaren nondik norakoak barneratu ditu.					
Badaki iparrorratza manejatzen.					
Badaki plano/mapa bat marrazten inguruko elementuak kontuan hartuz.					
Ikaskideak					

errespetatu eta lagundu ditu prozesuan zehar.					
Klaseko giroa ona izateko lagundu du.					
Gai da bere emozioak eta sentimenduak eguneroko batean adierazteko.					
Badaki mapa baten bitartez elementu bat aurkitzen.					
Galeio parkean taldekideak lagundu ditu eta jarrera aktiboa izan da pistak eta soluzioa aurkitzeko.					
Nota orokorra					
Oharrak					


2. Eranskina: eskolaren mapa




3. Eranskina




4. Eranskina




5. Eranskina




6. Eranskina: Postak eta ibilbidearen mapa




7.Erasnkina




8. Eranskina




9. Eranskina




10. Eranskina




11. Eranskina




12. Eranskina




13. Eranskina




14. Eranskina




15. Eranskina



16. Eranskina




17. Eranskina



18.Eranskina

<p>1.Pista Adierazi puntu kardinalak eta hauen konbinaketa posibleak.</p> <ul style="list-style-type: none">● Erantzuna: Iparraldea, Ekialdea, Hegoaldea, Mendebaldea, Ipar Ekialdea, Hego Ekialdea, Ipar Mnedebaldea eta Hego Mendebaldea.	<p>2.Pista Problema matematiko bati soluzioa eman.</p> <ul style="list-style-type: none">● Problema: Hasiera puntutik parkeko Mendebalderago dagoen punturaino 227,5 metro daude. Taldean 5 pertsona bazaerete, zenbat metro egingo dituzue guztira?
---	--

<p>3.Pista Zeumugarekin maitemindutako gezi bat, egiten duena axola ez duena beti esaten duena non..</p> <p>Soluzioa:Iparrorratza</p>	<p>4.Pista Puntu kardinal bat hartu (Iparraldea, Ekialdea, Hegoaldea, Mendebaldea) eta hizkiak sortu gorputza erabiliz. Taldeko kide guztiek, gutxienez, letra batean atara behar dira.</p> 
---	---

5.Pista

Zuretzat ilargia lapurtuko nuke
 gauero
 Eta zu itsu zaude bere argia
 ikusteko
 Irrifarrez gero minez....


Ilargia, Ken Zazpi

Lurretik lorera, loretik bihotzera
 legetatik urrun, malkotatik gertu
 esaidak lagun...

Begitara begira, Vendetta

Denok ez dugu berdin
 Kontatzen istoria,
 Zaila da ulertzea
 Bestearen egia...

Zapalduen olerkia, Ken Zazpi

6.Pista**Soluzioa:**

3	4	2	1
1	2	3	4
2	1	4	3
4	3	1	2

7.Pista

Eskuak eta gorputz erabiliz musika erritmo
 bat sortu eta taldekide guztien artean aldi
 berean egin.

8.Pista

Pista honetan poltsa bat aurkituko duzu.
 Bertan parkean zehar ikusten dituzuen
 zakar guztiak hartu eta bertan gorde behar
 dituzue. Gorde eta pista guztiak bukatu eta
 gero parkea garbituko dugu. Zaindu
 dezagun gure ingurunea!

<p>9.Pista Egokitu zaizuen taldeari azkenengo norabidea eta noranzkoa adieraziko diezue klasean ikusi dugun modura. Graduekin eta metrotan neurtu behar duzue. Gogoratu pauso bat metro bat dela.</p>	<p>10.Pista Aurreko taldeak adierazitako puntuan talde argazki bat egin. Ondoren, talde horrek konprobatuko du puntua ondo aurkitu duten edo ez.</p>
--	---

19.Eranskina

- Norabidea eta noranzkoa

Pista	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Metroak (m)	40	32	12	26	32	112,5	82,5	120	114	
Graduak (°)	260	195	90	340	15	290	360	250	180	

- Pisten Fitxak

<p>1.Pista</p>	<p>2.Pista</p>
-----------------------	-----------------------

<p>3.Pista</p>	<p>4.Pista</p>
-----------------------	-----------------------


--	--

5.Pista	6.Pista
----------------	----------------

7.Pista	8.Pista
----------------	----------------

9.Pista	10.Pista
----------------	-----------------

--	--



21.Eranskina



22. Eranskina

1



2



3



4



5

6



7



8



9

10



Haiek egindako pista eta argazkia